

KIROLBUY

Funtsezko Elkarteak:

Gure proiektua betetzeko, hainbat funtsezko elkarte edo pertsona behar ditu. Horien artean gu gaude. Taldekide bakoitzak funtzesko baliabide bat jarri dugu. Julen, TikTok ADS ezagutzen du eta badaki bideoak promozionatzen. Josu, edizioa asko gustatzen zaio eta oso ondo editatzen ditu bideo motzak. Asier, TikTok plataforma asko erabiltzen du eta badaki zer izan behar duen bideo bat jendeari gustatzeko. Eta azkenik Mikel, afiliatuen munduan denbora dextente darama eta badaki zer produktu izango dituen erosketak. Eta taldekide guztiok amankomunean daukaguna, kirola da. Bakoitzak kirol desberdin bat du gustuko eta asko lagundu dezakegu gure kirolaren inguruko informazioarekin.

Marka desberdinekin kontaktuan jarriko gara haien produktuak jendeari ikusarazteko. Adibidez, Adidas futbol zapata berriak atera ditu eta salmentak izan nahi baditu, guri bidaltzen digu pare bat zapata gure futboleko TikTok kontuan frogatzeko eta onak diren ala ez esateko. Horregatik, Adidas deskontu kode bat emango digu eta gure kodearekin edo gure link -etik erostean, komisio bat jasoko dugu. Honi esker, alde batetik dirua lor dezakegu eta bestetik gure kontua asko haziko daiteke jendeak ikustean marka batek guran konfiantza duela. Baita ere egin dezakegu zozketaren bat kirol marka batekin. Laburtuz, produktu bat promozionatu eta frogatuko dugu, dirua lortzeko eta gure TikTok kontuak hazteko.

Proiektuaren aurkezpenean esan bezala, gure xedea jendeari laguntzea da eta ez dirua lortzea. Horregatik bideoak grabatu nahi ditugu beste TikToker batzuekin; hau da, “konpetentziarekin”. Era horretara gure bideoak bisita gehiago izango dituzte eta pertsona gehiagoren dudak argituko ditugu.

Aurreko lerrokadari lotuta, kirolari profesionalekin ere harremanetan jarriko gara. Kirol alor bakoitzeko kirolari batekin kontaktuan jarri ezgero, ikuspuntu profesionalago bat izango dugu eta kirolariak eta gu zerbait irabaziko dugu. Kirolari profesional bat gure bideotan agertzean erosketa eta bisita gehiago izango ditugu, eta kirolaria jende gehiago ezagutuko du. Horri esker kirolariak ospetsuagoa izango da neurri txiki batean eta guk diru gehiago lortuko dugu pertsona gehiagori lagunduz.

Dirua lortzeko hoberena marken patrozinioak dira. Gure bideoak patrozinatzeko prest dagoen elkarteren bat aurkituz gero, bideon kalitatea hobea izango litzateke. Patrozinioak dirua ematen dute eta diru hori inbertitu dezakegu kamaretan, mikrofonoetan, editoreetan...

Idea hori aurreko paragrafoaren antzekoa da, biok irabazten dugu.

Azkenik aipatu behar dugu, TikTok gabe ezin dugula gure proiektua martxan jarri, horregatik gure azkeneko funtsezko elkartera TikTok da. App honen algoritmoari esker gure bideoak biralizatuko dira. Guk TikTok ADS ordainduko ditugu eta era horrekin bisitak lortuko ditugu.